


Pilota

Euskaltzaindiaren

Hiztegia



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa

ados izan

1 *da* ad.-lok. **Kiroletan eta lehiaketetan, pilota-jokoan bereziki, tanto kopuru bera izan.** *24na ados ziren. 11n eta 32an ados izanik, zuberotarrak nagusitu dira. Bi hautagaiak ados dira, 20na botorekin.*

airetik

adb. *Ipar.* **Pilota-jokoan, pilotak lurra ukitu aurretik.** *Holako begi kolpea duzula pilota airetik biltzeko.*

airez²

adb. *Heg.* **Pilota jokoan, airetik.** *Olaizolak airez sartzea lortu zuen, eta partida irabazi.*

artekari

1 iz. **Joko apustuak bideratzen eta antolatzen dituen pertsona, apustularien arteko bitartekari bezala aritzen dena.** *Partida parekatua izan zen bitartean, artekariak trabes ugari trukatu zituzten.*

atxiki handi

iz. **Xisterarekin egiten den pilota-jokoa, atxiki eginez jokatzen dena.**

atxiki txiki

iz. **Xistera txikiarekin egiten den pilota-jokoa, atxikirik egin gabe jokatzen dena.**

atxiki

1 iz. **Pilota-jokoan, pilota zuzenean jo beharrean, une batez atxikitzea, esku pilotan-eta huts gisa hartzen dena.**

atzelari

1 iz. **Pilota-jokoan zein taldekako beste zenbait kirolekin atzean jartzen den jokalaria.** *Atzelariak eutsi eta aurrelariak tantoak egin. Futbol talde bateko atzelariak.*

aurrelari

1 iz. **Pilota-jokoan nahiz taldekako beste kirolekin, aurrean jartzen den jokalaria.** *Atzelariak eutsi eta aurrelariak tantoak egin. Golak ziurtatuko dituen aurrelari bat ekarri nahi du taldeak.*

besagain

1 adb. **Besagainka**. *Pilota besagain jo, besagain bota. Enborra besagain ebaki. Haren besagain jotzeak txalotuz.*

2 iz. **Pilotariak besagain jotako kolpea**. *Bai besagain, bai besazpi, bai punpa-lasterrak, oro zituen eder Kurutxet Ezkerrak. .*

besape²

adb. **Besoa jaso gabe eta behetik gora mugituz**. *Pilota besape jo.*

besazpiz

adb. **Besape**. *Pilota besazpiz jo zuen.*

bizi

8 adj. **Pilotez mintzatuz, bote handiak egiten dituen**a. *Barriolak pilota biziak aukeratu zituen. Egun pilota biziak erabiltzen dira.*

bolea

iz. *Heg. kirol.* **Pilotarekin jokatzeko diren hainbat kirolak, pilota airez, eta eskua sorbalda baino gorago dela, jotzen den kolpea**. *Belokik korrikaldi izugarria egin zuen eta boleaz astindu zuen pilota. Aurrelariak boleaz egin zuen lehen tantoa.*

botaharri

iz. **Zenbait pilota-jokotan, sarea egiteko erabiltzen den harria**.

bote

iz. **Pilotak edo antzeko zerbaitek lurraren edo hormaren kontra jotzean egiten duen jauzia**. *Sakean bote egiteko. Bote okerra harturik.*

botepronto

iz. *Heg. kirol.* **Pilota-jokoan, punpa lasterra**. *Partida ofizialetako presiorik gabe jokatzeko; haiek errebesak, zartakoak eta boteprontoak!*

boteprontoan

1 adb. *kirol.* **Punpa egitean lurra jo bezain laster pilota joz**. *Zaila egiten zait, lau eta erdiko joko-eremuan bezala, boteprontoan eta pilotakada azkarrez, aldaketa handiak egiten hastea.*

botillero

iz. [Pilotariari partidaren atsedenaldietan aholkuak ematen dizkion laguna](#). *Botileroaren lana huts txikiak zuzentzea da.*

buruz buruko

adj. [Aurrez aurrekoa; banakakoa](#). *Buruz buruko borrokan indartsuenak ziren. Buruz buruko txapelketa. Buruz buruko txapeldun izandako sei pilotari.*

dejada

iz. *kirol*. [Pilota-jokoan, pilota ia indarrik gabe jotzea frontisaren inguruan uzteko](#). *Pilota dejada egiteko aukeran utzi zion. Tantoaren bukaeran pilotariak dejada bota zuen txokora. Dejada huts egin.*

eraman

9 du ad. [Pilotan, erasotzeko adinako indarrik gabe pilota frontiseraino bidali](#). *Goizuetakoak lanak izan zituen zabaletik pilotak eramateko.*

erraketa

1 iz. [Hainbat pilota-jokotan erabiltzen den pala sareduna](#). *Erraketa eta pilota eskuartearen zerabiltzala. Errazagoa dela badminton partida bat badminton erraketekin jokatzea, tenis erraketekin jokatzea baino.*

erraketa-joko, erraketa joko

iz. [Emakumezkoen plekako pilota-jokoa, erraketa batez eta larruzko pilota batez jokatzen dena](#). *Erraketa jokoa kirola zen, baina baita ikuskizuna ere; deigarria zen emakumeak frontoian ikustea. Ameriketan erraketa-jokoan aritu ziren emakume pilotari profesionalei buruzko erakusketa da hau.*

erraketista

iz. [Erraketa-jokoan aritzen den pilotari emakumezkoa](#). *Erraketista gehienak Ermua, Eibar, Mallabia eta Durango ingurukoak ziren hasieran, eta eskolak ere inguru horretan zeuden. Joko honen urrezko garaian, 40ko eta 50eko hamarkadetan, 300-400 erraketista aritzen ziren Espainiako Estatuan.*

errebes

3 iz. **Kirolariak pilotari, datorkion aldearen kontrako besoaz, ematen dion kolpea.** *Lehen go pilotariak oso gutxitan erabiltzen zuten errebesa. || Pala ederki erabiltzen du errebesez.*

errebotatu, errebota, errebotatzen

du ad. Heg. Zerbait, beste zerbaiten kontra talka egin ondoren, bote antzeko bat eginez, beste norabide batean atera. (nor osagarririk gabe). Mailuak, pareta batean errebotatu ondoren, garondoa jo ninduen. Garrasi egin zuen, bozkario garrasi ozen bat, hormatik hormara errebotatu zuena. Laxoa joko zuzena da; pilotariak bata bestearen aurrean kokatzen dira, eta ez da beharrezkoa pilotak paretan errebotatzea.

errebotari

iz. **Errebotearen aldean jokatzeko duen pilotaria; errebotean jokatzeko duen pilotaria.**

errebote

1 iz. **Xisteraz, aurrez aurre jartzen diren lau edo bost laguneko bi talderen artean jokatzeko duen pilota-jokoa.** *Errebote jokoa. Laxoko edo luzeko jokoak errebotekoaren lege bertsuak ditu. Erreboteko partida. Erreboteko plaza.*

2 iz. **Errebotean jokatzeko plaza.** *Urruñako errebotea. Bezperak ondoan errebotean ikusi ditugu pilotan. Pleka partida, gure errebote estalkidun berrian.*

3 iz. **Pilota-jokoan, pilotak atzeko horman jotzea; atzeko horma bera eta bere alde.** *Errebotetik pilota hartu. Errebote alderdikoak ere lau edo bost dira.*

4 iz. **Alde horretan jokatzeko duen pilotaria.** *Errebotearen joa doa urrunera.*

5 iz. **Bigarren botea, edo hurrengoetako bat.**

errefera eman

1 *dio ad.-lok. Ipar. Pilota-jokoan, sakea itzuli. Jokalaria ona bada, sakeari ematen dio errefera ona.*

erreferatu, errefera/erreferatu, erreferatzen

du ad. Ipar. Pilota-jokoan, errefera eman. Errebotean esku hutsez erreferatzen ere eder da.

errematatu

2 du ad. kirol. Pilota-jokoan, jokoan dagoen tantoa erabakitzeko, pilota bota aurkariak nekez itzultzeko moduan, frontis ondotik eta pilotari abiadura handia emanez. Partida-hasiera Xala eta Paskualena izan zen, aurea hartu zuten, baina neurri handi batean, Titinek errematatzen asmatu ez eta pilota asko galdu zituelako.

erremate

4 iz. kirol. Pilota-jokoan, jokoan dagoen tantoa erabakitzeko, pilota aurkariak nekez itzultzeko moduan botatzea, frontis ondotik eta pilotari abiadura handia emanez. Lau eta erdian partida dotorea eskaini dute pilotari biek eta Alberdik ezker gantxoak erremate dotoreak egin ditu.

erreminta

2 iz. kirol. Pilotako hainbat modalitatetan erabiltzen den tresna. Hara non topatu zituen kutxa handi batean errebotean jokatzeko erremintak: saskiak, eskularruak, pilota zaharrak...

erremonte

iz. Plekako pilota-jokoa, xistera ez oso sakonaz eta atxikirik egin gabe jokatzeko dena. Heldu den astean aurkeztuko dute Binakako Erremonte Txapelketa.

erresto

1 iz. Pilota-jokoan eta beste kirol batzuetan, sakea itzultzea. Errestoan ez zen txukun ibili pilotaria. Erresto ona egin, korrika egin, eta atzealdetik kontrolatu; Davidenko da tenis mota horretan maisua.

eskapada

3 iz. Pilota-jokoan, gaizki jotako pilota. Gorabehera askoko final hura Goñi III.aren eskapada batek erabaki zuen. Buruan pilotakada gogor bat jaso zuen Oiartzungo atzelariaren eskapada baten ondorioz.

eskas

6 iz. *Ipar. Pilota-jokoko aurreko marra. Pilota bat baratua denean pasamarraren eta erreboteko eskasaren artean.*

esku huska, esku-huska

adb. *Pilota-jokoan, pala edo kidekorik gabe. Nahiz esku-huska nahiz larruz, ez baitu kiderik. Esku-huska aritu.*

esku pilota, esku-pilota

iz. *Eskuz jokatzen den pilota-jokoa. Guk nahi dugu neskek 14 urtetik aurrera ere esku pilotan jokatu ahal izatea. Igandean esku-pilotako bi partida izango dira.*

esku-huskako

adj. *Pilota-partidez mintzatuz, eskuz jokatzen dena. Esku-huskako pilota-partida bat.*

eskularru

2 iz. *Pilota-joko mota batzuetan erabiltzen den eskularrua, larruzkoa eta sendoa. Eskuz nahiz eskularruz jokatzen zuen.*

eskuz

2 adb. *Pilota jokoan, esku hutsez, tresnarik gabe.*

eskuz binakako

adj. *Euskal Telebistak Oñatin jokatuko diren eskuz binakako pilota partidak eskainiko ditu zuzenean. Eskuz Binakako Txapelketa.*

eskuzko

adj. *Eskuzko Pilota Enpresen Liga.*

estelar

iz. *Pilota-jaialdi bateko partida nagusia. Erremontezaleek puntako partida ikusteko aukera dute gaur, Galarretako jaialdiko estelarrean.*

ezker-zehar

iz. *kirol*. Pilotan, ezkerreko eskuarekin, besoa sorbalden parera jasorik, airez pilota jotzea; era horretan jotzen den pilotakada. *Aipagarria da 10 eta 2 zihoazela bota zuen ezker-zehar beldurgarria.*

ezkerka

adb. Pilotan eta kideko kiroletan, ezkerrarekin joz. *Ezkerka ari ziren.*

ezkerpareta

1 iz. *Ipar*. Pilotaleku mota, frontisaz gain ezkerreko horma ere *baduena*. *Duela zenbait urte, ezkerpareta batera Retegiren eta Galarzaren arteko esku-huskako partida baten ikustera etorri nintzela gogoratzen naiz. Torneoa Angeluko ezkerparetan jokatu da.*

2 iz. *Ipar*. Ezkerparetan jokatzen den pilota-jokoa. *Ezkerparetako profesional ohia. Ipar Euskal Herrian ez da erraza ezkerparetan bidea egitea.*

frontenis

iz. Plekako pilota-jokoa, teniseko erraketen antzekoak erabiliz pilotalekuan jokatzen dena. *Bizitza guztia daramat pilotan jokatzen, eskuz, palaz, frontenisean...*

frontis

1 iz. Pilotalekuaren aurrealdeko pareta. *Pilota politik, biziak, frontisetik ongi ateratzen direnak.*

frontoi

2 iz. Pilotalekua. *Tolosako Beotibar frontoian hasiko dira final-laurdenak.*

fueraka

2 adb. Taldean jokatzen den eta, tantoa galdu ahala, jokalaria kanporatzean datzan pilota-jokoan. *Errekreo denboran fueraka jokatzen genuen.*

gantxo

2 iz. *kirol*. Pilotarekin jokatzaren diren hainbat kiroletan, pilota, airez, ezkerretik eskuinera edo eskuinetik ezkerrera jotzean datzan kolpea. Irujok azken tantoa zabalera botariko gantxo batekin egin zuen. Tanto batzuk zoragarriak egin ditu ezker gantxoz. Xalak gantxo bikaina du, eta bolean eta punpan ere ederki ari da.

gibelari

iz. *Ipar. g. er.* Pilotan, atzelaria. Ruiz gaztea gibelari zuela, bertze bi gazte bipilen kontra ari izan da.

gozatu, goza, gozatzen

8 du ad. Pilota jokoan, pilota eskuan ondo sartu eta indar, abiadura eta norabide egokiarekin jo. Tanto horretan Belokik ez zuen gozatu, zabalera joan zitzaion pilota. Beginok pilota guztiak gozatu zituen.

horma-biko

iz. Pilota-jokoan, pilotak ezkerreko horma eta frontisa jotzea. Aurretik jarri zen, horma-biko bati, sake on bati eta dejada bati esker.

iltze

3 iz. Eskuzko pilotariei ahurrean sortzen zaien mina. Hiru astez egon naiz pilotan jokatu gabe eskuko iltzea zela eta.

intendente

1 iz. Pilotaleku bateko kudeatzailea. Jokatzeari utzi zionean bi urte egin zituen kantzako epaile bezala, Ocalako pilotalekuko intendente postua onartu aurretik. Alberdik lan zaila dela azaldu du, intendente izatea partidak antolatzea baino gehiago dela.

jo²

iz. Pilota jotzea edo jotzeko moldea. Jo luzea, laburra, hutsa. Errebotearen joa doa urrunera.

joko

6 iz. Pilota-joko batzuetako partida banatzen den zati bakoitza. Partida egiten da honenbeste jokotara; maizenik hamahirutara.

joko garbi

2 iz. [Atxiki txikia](#). Ezker ederra erakutsi zuen errebotean eta joko garbian.

pilota joko, pilota-joko

iz. [Bi jokalariren edo bi talderen artean jokatzen den kirola, pilota, eskuz, palaz edo xisteraz, horma baten kontra edo aurrez aurre dagoenari botatzean datzana](#). Euskaldunek sortua dela pilota eta pilota-jokoa.

kaiola

4 iz. [Pilota-jokoan, lau eta erdikoa](#). Oso trebea da kaiolako jokoan. Kaiolako txapelketa.

kantxa

iz. [Jokalekua, bereziki pilotan eta saskibaloian](#). Juantxo Kokak kantxa erditik ez du barkatzen. Kantxa barruan gidari lana egiten zuen, baina baita kantxatik kanpo ere.

kintze

iz. Ipar. [Pilota-jokoko tantoa](#). Lehen hamar kintzeak lapurtarrek daramatzate.

kiski

iz. [Larruzko pilotaren muina](#). Mutikotan urrea baino estimatuago edukitzen genuen kiskia.

koadro

5 iz. [Pilotalekuan, marren bidez banatzen diren zatietako bakoitza](#). Zortzigarren koadroan bote egin eta erreboteko paretan jarri zuen pilota.

kontrakantxa

iz. [Pilotalekuan kantxaren alboan dagoen eremua](#). Meritu handiko pilotak altxatu zituen kontrakantxatik. Hutsak, txapa-hotsak eta kontrakantxara bidalitako pilotak asko izan ziren.

lau eta erdi

iz. **Pilotan jokatzeko era, lau koadro eta erdiko eremuan jokatzeko dena.** *Lau eta erdi sailean elkarren kontra jokatzeko dute lehen aldiz. Lau eta erdiko txapelketa.*

laxo

4 iz. **Eskularruz, aurrez aurre jartzen diren bi talderen artean, jokatzeko den pilota-jokoa.** *Laxoa arras galdu da gure eskualde honetan. Laxoko edo luzeko jokoak errebotekoaren lege bertsuak ditu.*

luze

9 iz. **Aurrez aurre jartzen diren bi talderen artean jokatzeko den pilota-jokoa.** *Luzean jokatu. Luzeko jokoa.*

pala

4 iz. **Pilotan jokatzeko zurezko tresna, heldulekuaren muturrean mehea eta bestean aski zabala dena; tresna hori baliatuz egiten den kirola.** *Pilota eta pala. Pala txapelketa.*

palari

iz. **Palan jokatzeko duen pilotaria.**

paleta

3 iz. **Pilota-jokoan erabiltzen den pala zabala.** *Paleta txapelketa.*

pasa-marra

iz. **Pilota-jokoan, botoak ezin igaro duen marra.** *Pasa-marra lau metroetan zuten. Pasa-marraren eta erreboteko eskasaren artean.*

pasaka

1 iz. **Eskularruz egiten den pilota-jokoa.** *Astelehenean, goizeko 11etan, pasaka-partida trinketean. Jean-Claude Zuburu eta Lataste Frantziako txapeldun atera dira pasaka-jokoan.*

2 adb. *Pasaka jokatu.*

pasakari

iz. **Pasaka jokatzeko duen pilotaria.**

pik

adb. *Ipar. Pilota-jokoan, pilotak paretaren eta lurraren arteko zokoan jotzen duela. Joan zitzaion pilota bat, ez pik, bai pik, hein hartakoa. Eskularrua kendurik, bi bote segidan sartzen ditu: bat pik-ondo, bigarrena pik. Ene lagun Martin baitzen pik ematen nagusi, hari esker genuen guk partida irabazi.*

pilota

1 iz. *Jolasean ibiltzeko erabiltzen den bola, gai elastikoz egina; bereziki, euskal pilota-jokoan erabiltzen dena. Pilota bizia, motela. Tennis pilota. Zortzi ontzako pilota.*

2 iz. *Pilota-jokoa. Pilota, euskal jokoa. Dirutza handiak pilotan jokatuz. Pilotara ez ezik, beste apustu mota askotara ere zaleak dira txit. Pilota-partida.*

3 iz. pl. (Jokaldiaren edo joko-aukeraren irudi bezala). *Saketik ezarri zuen bere erritmoa, eta ondo baliatu zituen frontisetik gertu aurkitu zituen ia pilota guztiak. Nik pilota guztiak bortitz jotzen ditut, eta nekea handiagoa da. Partida txarra jokatu zuten bi pilotariek, pilota asko galdu baitzuten.*

pilota jaialdi, pilota-jaialdi

iz. *Pilotaleku batean elkarren jarraian jokatzen diren hainbat pilota-partidako jardunaldia. 19:00etan emakumeen eskuzko pilota-jaialdia.*

pilota joko, pilota-joko

iz. *Bi jokalariren edo bi talderen artean jokatzen den kirola, pilota, eskuz, palaz edo xisteraz, horma baten kontra edo aurrez aurre dagoenari botatzean datzana. Euskaldunek sortua dela pilota eta pilota-jokoa.*

pilota plaza, pilota-plaza

iz. *Ipar. Pilotalekua. Hernaniko Galarreta pilota-plazan kantatu zuen.*

pilotagile

iz. *Pilotak egiten dituen pertsona. Xalak azaldu zuenez, saskian zeuden pilotak pilotagileak bidalitako sorta berri batekoak ziren.*

pilotakada

iz. **Pilota-ukaldia**. *Lehenengo zatian etxeko pilotariak pilotakada ederrak jo zituen, eta mendeen izan zuen aurkaria. 26 minutuko partidari, 122 pilotakada. || Harriekin eta botilekin erantzun zieten polizien pilotakadei.*

pilotaleku

iz. **Pilota-jokoan aritzeko prestaturik dagoen lekua**. *Azpeitiko pilotaleku zaharrean. Pilotalekuari teilatua ipini behar zaio.*

pilotan

adb. **Pilota-jokoan**. *Pilotan jokatzeari askotan iristen nintzen berandu eskolara. Pilotan ari zen.*

pilotari

iz. **Pilotan jokatzeko duen pertsona, bereziki, pilota-jokoa ogibide duena**. *Herriko pilotari hoberenen artean. Pilotari ibili zen Ameriketara.*

pilotazale

iz. **Pilota-jokoaren zalea den pertsona**. *Iñaki Arrosagaraik urrun eta gora eramane du Luzaiderekin fama pilotazaleen munduan.*

piloteo

iz. *Heg. kirol.* **Pilota-jokoan eta kidekoetan, tantorik egin gabe jotzen den pilotakada sorta**. *26 tanto eginak: 13 saketik eta 13 piloteoan. Pixkanaka Goizuetakoa piloteoan nagusitzen eta eroso jokatzeko hasi zen. Barriola saiatu zen piloteoa luzatzen, baina Bengoetxea VI.aren erritmo biziak ito egin zuen atzelaria*

pleka

1 iz. **Pilota-jokoa, pilota aurrez aurreko paretaren kontra jaurtitzean datzana**. *Plekako jokoa. Plekako partida bat. Horra esku-huskako plekaren edertasuna. Laxoan, errebotean edo plekan.*

2 adb. **Plekan, pleka-jokoan**. *Lehen, plaza batzuetan, ez zen haizu pleka aritzea. Xisteraz pleka ari direnek.*

plekari

iz. **Plekako jokoan aritzen den pilotaria.** *Frantzian, plekariak saihetseko paretarik gabe aritzen dira Espainian baino meritu gehixeagorekin.*

punpa

iz. **Botea.** *Paskual, bestalde, laugarren koadroan punpa egiten duten pilota errazak bederatzigarren koadroraino botatzera ohituta dago. Loriagarri ziren harri haiek egiten zituzten punpak behereko ur errekaraino.*

punpa laster, punpa-laster

iz. **Punpa egitean lurra jo bezain laster pilota edo baloia jotzea.** *Bai besagain, bai besazpi, bai punpa-lasterrak, oro zituen eder Kurutxet Ezkerrak. Punpa-laster bat ezkerrez. Punpa lasterrez baloia jo eta hagen artean sartu zuen baloia.*

punpaka

adb. **Punpa eginez.** *Ero bat bezala, jauzika, punpaka ari zait bihotza.*

punparazi, punparaz, punparazten

du ad. *Ipar.* **Punpatzera behartu.** *Pilota punparazi zuen. Sei eta erdietan iratzargailuak, loak osoki hartua ninduela, ohean punparazi nau.*

punpatu, punpa/punpatu, punpatzen

1 du ad. *Ipar.* **Punpa eginarazi.** *Pilota punpatuz, badoa gure pilotaria oldarrean lauzara.*

2 da ad. *Ipar.* **Punpa egin.** *Eta alimaleko suzko biribil bat erortzen da Ahartzako lepoan, punpatzen, berriz erortzen eta zartatzen.*

puntista

iz. *Heg.* **Zesta-puntako pilotaria.** *Hemendik aurrera zesta-punta jaialdiak urriagoak izango dira, eta punta-puntako puntista gehienak AEBra begira jarrita daude jada.*

sakatzaile

iz. **Sakea ateratzen duen pilotaria.** *Aurtengo binakako txapelketan sakatzaile trebea dela erakutsi du Barriolak.*

sake

1 iz. *Pilota-jokoan eta kidekoetan, jokaldia hasteko pilota jaurtitzea. Ezin izan du sake gaizto hori eramanez.*

sake-erremate

iz. *Heg. kirol. Pilota-jokoan, sakea egin duen pilotariak bigarren pilotakadan tantoa egitea. Tanto gehienak sake-errematez lortu zituen. Sake-erremate teknikak tanto ugari eman zizkion. Pilota motelagoak aukeratu ditu sake-erremate jokoaz baliatzeko. Sake-errematean horma-bikoa jo zuen airez.*

sakea atera

du ad.-lok. Pilotarekin edo baloiarekin jokatzen diren hainbat kirolekin, jokaldia hasteko pilota jaurti. (Futbolekin eta kideko beste hainbat kirolekin, partida hasierako baloi jaurtiketa adierazteko erabiltzen da batez ere). Lehen tantoan, sakea atera eta lesionatu egin nintzen. || Sake ona atera du. Elgoibarko jokalariek ohorezko sakea aterako du San Mamesen.

sotamano

iz. *Heg. kirol. Pilota jokoan, pilota goitik behera datorrela, lurrean botea egin baino lehen, besape jotzea. Gaur azkarrago jokatzen da, eta izugarri erabiltzen da sotamanoa. Aspeko pilotariak sotamano aparta dauka. Ezker boleaz eta sotamanoz aurre egin zion kantxa erditik Zabaletaren kolpe biziari.*

tako

4 iz. *Heg. Pilotariak, eskuak babesteko, ahurrean eta hatzetan jartzen dituzten pieza karratuetako bakoitza. Takoak jarrita aritu zen Xala, bere burua gehiegi behartu gabe. Litekeena da takoak jartzeko modu berriarekin sentsibiltate pittin bat galdu izana.*

trinket¹

iz. *Alboko bi hormak dituen pilotaleku itxia eta estalia, jokalekuaren atzealdean ere pareta duena; pilotaleku horretan jokatzen den pilota-jokoa. Frantzian jaioa da, han bertan hazia, trinketean jokatzen ez da itsusia. Trinket partida.*

trinketlari

iz. [Trinketea](#)n jokatzen duen pilotaria. *Sekula ez da egon, nik dakidala, trinketlari profesionalik.*

txapa

2 iz. [Heg.](#) [Pilotalekuetako frontisaren metalezko xafla estua.](#) *Dejadak txapara joan zitzaizkion.*

txoko

2 iz. [Pilotalekuan pareta biak elkartzen diren lekua eta ingurua.](#) *Capellane*k horma-bikoa jaso, dejada txokora, eta tantoa.

xare

iz. [Pilota-joko mota, sare lasaia duen pala moduko batez jokatzen dena.](#) *Pilota Federazioak xareko bi pilotari gazte zigortu ditu.*

xaxari

iz. [Ipar.](#) [Pilota-partidetan tantoak kontatzen dituen pertsona.](#) *1-0 zihozazenean, xaxariak esaten zuen: (...).*

xistera¹

iz. [Pilota-jokoetako tresna, eskuari lotzen zaion zumitzezko saski estu eta luze baten modukoa; tresna horrekin egiten den jokoa.](#) *Eskuz, eskularruz eta xisteraz berdin trebe zen. Xisteraz pleka ari direnak. Non eta noiz sortu zen xistera?*

xisteradun¹

adj. [Pilotan, luzeko jokalariez mintzatuz, xistera duena.](#)

xisteragile

iz. [Pilota-jokorako xisterak egiten dituen pertsona.](#)

zabal

8 iz. [Pilotalekuetan, kantzaren eskuineko aldea.](#) (Batez ere lekuzko atzizkiekin erabiltzen da). *Batek atzera, besteak aurrera, errematea zabalera, txokora errestoa.*


zesta

- 1 iz. **Xistera, pilota-jokoko tresna.** *Haurrentzako ikastaroak antolatzen ditu, gomazko pilota eta plastikozko zestekin.*
- 2 iz. **Zesta-punta.** *Zestak badu aurten bere txapelduna. Zestako eta esku-huskako partidak jokatuko dira.*

zesta-punta

- iz. **Plekako pilota-jokoa, pilota xistera sakon batean atxikiz jokatzen dena.** *Euskadiko Zesta-punta Txapelketaren finala gaur Gernikan. Zesta-puntan jokatzea asko gustatzen zait, gutxiago sufritzen da.*

Eguneratze-data: 2025-05-29



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Terminologia
eta Lexikografia
Zentroa